


donostian donosti eta gorostian gorosti



barrenet 3. ikastunitatea
2. maila
irakaslearena

400 pta.

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna:	Juxto Egaña (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Kudeaketa:	Joanba Bergara (HABEko Prestakuntza arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak:	Begoña Martinez (HABEko teknikaria) Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Partehartzaileak:	Anabel Alegria (Leioako Udal Euskaltegia) Josune Aranguren (Muskizko Udal Euskaltegia) Joxe Manuel Goenaga (Santurtziko Udal Euskaltegia)
Errealizazio didaktikoa:	Esther Isasa (HABEko teknikaria)

© HABE 1999. ISBN 84-86968-69-0

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkie Enkarterrietako, Leioa, Muskiz eta Santurtziko Udal Euskaltegi eta Udalei materialgintza proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duten borondateagatik.

Halaber esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua eta maketazioa: **Tita Lorenz** eta **Marisa Mantxola** • Marrazkiak: **Marisa Mantxola**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako.

Euskaldunon Egunkaria:

Beltza ala gorria artikulua, Euskaldunon egunkariatik hartua. 97.10.07

Patxi Zubizarreta 1995. Eztia eta Ozpina Alberdania (10-15. orr. eta azala)

Erakunde honek aitortzen du ikas-material hau egiteko bestek sortutako argazkiak erabili direla, eta eskerrak ematen dizkiete egileei:

Argazkiak:

Amaia Zubiriaren argazkia: Elkar argitaletxea.

donostian donosti eta gorostian gorosti

barrenet 3. ikastunitatea

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

2. maila

irakaslearena

Hitzaurrea

Mende berriaren atarian, helduen euskalduntzearen berrikuntzaren aldeko erronkaren aurrean, HABEk kurrikulu-proiektua jarri du abian eta bere garapenerako hainbat pausu ematen saiatu da euskaltegiekin lankidetzan.

Berrikuntza kurrikularrak aldaketa sakona eskatzen du, hizkuntzaren ikas/irakas prozesuen bai helburu, eduki eta metodologiaren oinarriko balore eta printzipioetan, bai ebaluazio sisteman.

Badakigu eguneroko jardunari eragiten dioten aldaketek, egonezinak, zalantzak sortzen dituela. Urte askotako jardunak –eta ez jardun okerrak, bai baitakigu urte hauetan egindako ibilbidea eta esfortzua euskalduntze-alfabetatze arloan ez dela makala izan– errotu dituzte irakasleengan uste eta jardun didaktiko jakin batzuk.

Kurrikulu berrikuntzak dakarren aldaketa sustatzeko ez da, beraz, aski teoria berriak hotz-hotzean zabaltzea. Beharrezkoa izango da irakasleei, ahalik eta era zabalenean, jardura didaktiko berriak azaltzea, eta gelako benetako praktikara hurbiltzea. Beharrezkoa baita ere, hizkuntza ikas/irakaskuntzaren oinarri eta printzipioetatik eguneroko jardunerako jauzia errazteko zubia eskaintzea.

Eta horixe izan nahi dute HABEk aurkezten dituen ikasmaterial hauek; teoria eta praktikaren arteko zubia, kurrikuluaren mezua gauzatzeko aukera zehatza eta mezu horretara iristeko bitartekoa.

Material hauek diseinatzerakoan kurrikuluak bideratzen dituen eredu metodologikoen artean aukera bat egin da. Ez da, noski, aukera posible bakarra, baina bai, asmoz behintzat, eredu edo bidelagun, irakasleek beraiek euren materiala antolatu ahal izateko bidea erakutsi nahi dutenak.

HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Kurrikuluari (HEOK) dagozkion hiru mailatarako ikastunitateak burutu ditu.

Eskura duzun unitatea Barrenet sailekoa duzu. Barrenet 2. mailarako ikastunitateak osatzen dute; beren helburua, berriz, hirugarren mailarako hazia ereitea izango da, oinarriak ezartzea. Lau trebetasunen garapen integratua lantzerako datoz, diskurtsoaren plangintza-estrategiak jorratuz.

Ikastunitate hauek ez dute ikasprozesu osoari dagokion ibilbidea betetzen, uste baitugu irakasleak aplikatzaile huts eta zurrun ez, baina erabiltzaile zuhur, zentzudun eta printzipiodun izanik, zentzu kritikoz, jakingo dutela beren materialak antolatzen, eguneroko errealitateari eta beharrei erantzunez.

Jokin Azkue Arrastoa
HABEko Zuzendari Nagusia



AURKIBIDEA

1. Sarrera

- | | | |
|----|----------------------------------------|----|
| 1. | Irakaslearentzako oharrak | 6 |
| 2. | Ikastunitatearen ibilbidea | 7 |
| 3. | Ikastunitatearen edukiak eta helburuak | 10 |

2. Atazak

- | | | |
|-----------------|------------------------------------|----|
| A Ataza: | Zer irakurtzen duzu egunean zehar? | 10 |
| B Ataza: | Zurrutean | 11 |
| C Ataza: | Etiopian ere txakurrak oinutsik | 13 |
| D Ataza: | Urrun ta fits, betiko ta betiko | 17 |

3. Eranskinak

- | | | |
|----|-----------------|----|
| 1. | Bideo-pasarteak | 19 |
|----|-----------------|----|

4. Material osagarriak

- | | | |
|-----------------|----------------------------------------------|----|
| C Ataza: | Etiopian ere txakurrak oinutsik | |
| 1. | Musika-estiloak | 24 |
| 2. | Ohiturak lege | 27 |
| D Ataza: | Urrun ta fits, betiko ta betiko | |
| 3. | Pello Jauregi, gazte-koadrilak euskalduntzen | 29 |
| 4. | Dastatu literatura: Eztia eta ospina | 32 |

Hirugarren
ikastunitate honetan,
giza harremanen eta ohituren
gaineko gogoeta egingo da:
txikiteroen koadriletatik abiatu eta
ikasleen koadriletan amaituz, baina
tartean urruneko kultura bati ere begiratzuz.
Ibilbide honek irakurketa-moten gaineko
gogoeta egiteko, inkestak prestatzen
ikasteko eta alderaketan eta
kontrastean oinarritutako testuak
egiten ikasteko aukera
emango digu.



1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Ikas-estrategiak

Irakurketa-moten gogoeta bideratua egingo dute. Gogoeta horren bidez ikasiko dute zeintzuk diren mota horiek, zertarako balio duen bakoitzak eta helburuaren arabera irakurketa egiten.

Autonomia


Ikastunitate honek autonomiarako bidearen alor bat zabaltzea du asmoetako bat, irakurmena autonomoki lantzea eta garatzea hain zuzen. Irakurketa-mota ezberdinak zeintzuk diren argitzea da abiapuntua, ama-hizkuntzan egiten dutenari erreparatuz. Horrela, apurka-apurka, ama-hizkuntzan duten trebetasuna euskarara transferitzeko gauza izango dira.

Giza harremanak

Giza harremanak gobernatzen dituzten arau ezkutuei erreparatuko diegu B eta D atzetan. Bestalde, ohituren munduan sartuta, C atazak interkulturalitatearen ikuspegia emango digu, zeharo ezberdinak diren bi kultura elkarrekin erkatuz. Erkaketa haren, azkenengo atazan ikasleek testu bat sortu beharko dute koadrilen arteko ezberdintasunen berri emanez eta baloratuz.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA.

■ Hona hemen ikasleek ibili beharreko bidea.



OSAGARRIAK

**PELLO JAUREGI,
GAZTE-KOADRILAK
EUSKALDUNTZEN**
(29. or. irak. lib.)

IRAK

**DASTATU LITERATURA:
EZTIA ETA OZPINA**
(32. or. irak. lib.)

IRAK/IDAZ

**HASERREALDIETARAKO
HIZKUNTZ BALIABIDEAK:
ESPRESIOAK**
• Nola haserretu euskaraz
(29. or. ik. lib.)

GRAM

D. URRUN TA FITS, BETIKO TA BETIKO

- Koadrilen ohiturak
- Inkesta prestatu
- Jasotako datuen sintesia:
alderaketan eta kontrastean
oinarritutako testua
(17. or. irak. lib.) (18. or. ik. lib.)

IDAZ/GRAM

IKASLEEN AUTOEBALUAZIOA

(23. or. lk. lib.)

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA

- Bi koadrilaren ohiturak idatziz erkatzea eta baloratzea, inkestaren bidez lortutako informazioaren sintesia eginez eta ondorio batzuk atereaz.

LEXIKOA

- Koadrila, giza harremanak, ama-hizkuntza bigarren hizkuntza, irakurketa-mota, gainirakurketa, irakurketa xehea, irakurketa intentsiboa, portaera, arau, lege, ohitura.

MINTZAGAIAK

- Giza harremanetako arau ezkutuak eta agerikoak:
 - koadriletako harremanak eta ohiturak,
 - Etiopia eta Euskal Herriko gizartearen arteko konparazioa.
- Irakurketa-motak

ELKARRERAGINA

- Egunean zehar zer eta nola irakurtzen dugun azaltzea elkarri (A)
- Giza talde jakin baten jokabideak aztertu eta portaera-arau batzuk zehaztea (B)
- Oso egoera desberdin bi kontrastatzea (C,D)
- Besteengandik informazioa ateratzea inkesta eginez (C,D)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Ama-hizkuntzan irakurtzen dutena aztertzea (A)
- Irakurketa-mota desberdinak praktikatzea eta beroien berezitasunez jabetzea (B)
- Gertaera baten xehetasunak modu zehatz, formal eta laburrean idaztea (B)
- Entzundakoaren xehetasunak jasotzea (C)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Artikulu/testu baten antolaketa edo egitura testualari erreparatzea (B/C)
- Testu idatzia koherenteki ordenatzea (C)
- Aurkaritza eta konparazioa egiteko baliabideak aztertzea (C)
- Modu eskematikoan emandako puntu bat inkesta baterako modu egokian garatzea (D)

EUSKALKULTURA/GIZARTEA

- Koadrilen arau/ohiturak
- Euskal musika



ATAZA: ZER IRAKURTZEN DUZU EGUNEAN ZEHAR?



40'

Helburua:

- Ama-hizkuntzan zer eta nola irakurtzen duten aztertzea.

Zertan den:

- Ataza honen bidez, ikasleek eguneroko bizitzan eta ama-hizkuntzan zer irakurtzen duten eta nola irakurtzen duten hausnartu beharko dute. Izan ere, hurrengo atazan irakurketa-mota ezberdinak erabiliko dituzte eta ama-hizkuntzan dituzten trebetasun horiek transferitzeko gauza izan beharko dute.

PROZEDURA:

1

Ariketa honen bidez, egunero egiten dituzten irakurketa-modu desberdinez jabetuko dira ikasleak, eta hurrengo atazan izango dute helburuen arabera irakurketa-modu ezberdinak praktikatzeko aukera.

! Oharra: Hurrengo atazan azaltzen ez den irakurketa-mota estentsiboa da. Nahi izanez gero ataza honen feedbacka egiterakoan, irakurketa estentsiboa aipatzeko aukera izango duzu ikasleek literaturaz hizketan hasiz gero.

Atazaurrea

- Lehendabizi, egun buruzuri batean zer eta eguneko zein momentutan irakurtzen duten pentsatu eta idatziko dute, bakarka, emandako koadroan, hiru parametroren arabera: **1) zer/noiz/non 2) nola 3) zertarako**. Zer idatzi horretan laguntzeko, marrazki bat eman diegu ikasleei. **(5'- 10)**
- Ondoren, launaka jarrita, egindakoak alderatuko dituzte. **(15')**

Ataza: galderei erantzun

- Orain, ikaslearen orriko galderen bidez, irakurtzeko helburuen gogoeta egitera bultzatuko dituzu ikasleak. Erantzun diezaietela bi galdera horiei launaka apur batean pentsatu ondoren. **(10')**

Feedbacka

- Irakaslearen gidaritzapean, guztion komentatuko dira erantzunak. **(10')**

! Oharra: Gidatutako gogoeta horren bidez ondorio honetara iritsi nahi da: Irakurle trebeak irakurtzeko modua aldatu eta egokitu egiten du helburuaren arabera, hala ama-hizkuntzan nola bigarren hizkuntzan.

ATAZA: ZURRUTEAN 175'

Helburuak:

- Irakurketa-mota ezberdinen berezitasunak praktikaren bidez bereiztea.
- Testu baten antolaketari erreparatzea.
- Txikitero-koadrilen jokabideak aztertu eta portaera-arau batzuk zehaztea.
- Portaera-arau jakin baten xehetasunak modu zehatz, formal eta laburrean idaztea.

Zertan den:

- Ataza honetan, txikitero-koadrilei buruzko testuez baliatuz, hiru norabideko lanketa proposatzen dugu: irakurketa-motei buruzko hausnarketa, erdi ezkutuko portaera-arauen zehaztapena eta hiztegiaren lanketa uztartzen dituenak.

PROZEDURA:

1

Lehenengo irakurketa: gainirakurketa

- Beltza ala gorria testuaren (ikus ikaslearen liburuan 3.1 eranskina) gainirakurketa eginez hasiko gara. Ikasleek hogeita hamar segundotan egin beharko dute irakurketa hori.
- Bukatutakoan, irakurketa estali edo ezkutatu eta euren liburuan dituzten lehenengo multzoko bi galderei erantzuteko esango diegu. (5')
- Irakasleak arbelean idatziko ditu testuaren gainirakurketan oinarrituta, ikasleek gaiaren zer-nolakoaz egin dituzten hipotesi eta aurreikuspenak. (5')
Adibidez: Txikiteoa galtzen ari den ohitura da, eta galtze horren arrazoiak aztertuko ditu testuak.
- Ondoren, ikaslearen liburuko gogoeta bideratzeko galderetara egingo dugu jauzi. Galderok banan-banan planteatu talde osoaren aurrean eta ikaslearen erantzunak alderatu, komentatu eta eztabaidatu labur-labur.

Puntu honen feedbackean, irakasleak gainirakurketaren ezaugarri, berezitasun, baldintza eta abarrak argitu behar ditu. (5')

Bigarren irakurketa: irakurketa xehea

- Testuaren lehenabiziko bi pasarteei egingo diegu irakurketa hau. Testu-zati horretan erreportajearen aurkezpena dator, eta ikasleek, ezer ulertzeko gai izan badira, gainirakurketan egindako aurreikuspenak egiaztatu edo gezurtatu beharko dituzte. (5') ■ Nork bere irakurketa amaitutakoan, ikasleak binaka ipiniko ditugu eta arbelean bildutako aurreikuspenak aztertzeko esango diegu. Aurreikuspen desegokiren bat aurkituz gero, bazter dezatela. (5')
- Bikote bakoitzak, bere aukeraketaren berri emango du, eta guztion artean komentatuko da. (10')
- Ikasleek gogoeta bideratzeko galderei erantzungo diete bakarka. (5')



Testua osatu

! Oharra: Atal honetako 3. galdera berreraikitze-ariketa polita izan daiteke nork bere kabuz etxean egiteko. Ikus ikaslearen liburuko 4.1. material osagarrian.

IK. LIB. 4.1.

- Guztion artean komentatu erantzunak. (10')

Hirugarren irakurketa: Irakurketa intentsiboa: praktika eta feedbacka

- Testuaren azken pasartean aipatzen diren ikur edo topikoen (Begoñako ama, Athletik taldea...) arrastoa eta nondik norakoa bilatu behar dituzte ikasleek. Horretarako, ezinbestean, modu intentsiboan irakurri beharko dute testu osoa. Informazio-biltze hori ikasle bakoitzak bere aldetik egingo du. Ikasleek nahi izanez gero aurkitutako informazioa mapa semantikokoan sartuko dute hitz gakoak idatziz. (15')
- Bukatutakoan, hiruak bildu eta egindako lana komentatu, mapa semantikokoak alderatu eta ulertzeko izan dituzten arazoak aztertuko dituzte. (5')
- Ondoren, hirugarren irakurketa horri buruzko gogoeta egingo dute ikasleek. Horretarako, binaka jarri, eta ikaslearen liburuan proposatutako hiru galdera horiei erantzuten saiatu beharko dute. (5')

- Bukatzeko, irakaslea gidari dela, guztion arteko ideia eta iritzi-trukaketa laburra egingo da. (10')

2

Txikiteoa oso fenomeno zabala da, hainbat koadrila-mota, jokabide, arau, ohitura... biltzen baita berorren barruan. Ataza honetako bideo-pasarteak horietako kontu batzuei erreparatzeko parada emango dizue.

Atazaurrea: girotu

- Esan ikasleei lau taldetan jartzeko eta eman talde bakoitzari hauetako puntu bat komentatzeko: (5')

- A taldea:** Rolak: Zein izaten dira koadriletako rolak?
- B taldea:** Arauak: Zelan ordaintzen dira errondak koadriletan?
- C taldea:** Motak: Zein koadrila-mota ibiltzen dira txikiteoan?
- D taldea:** Zer edan. Prezioa. Zer edaten dute? Zenbat balio du edari bakoitzak? Zein da gogoan duzuen preziorik merkeena?

- Ostean, komentatutakoaren berri emango die talde bakoitzak gainontzekoei. (5')
- Ikasleek, **1. bideo-pasartea** ikusiko dute, Anttonek Bai, lasai, Michael, moldatuko gara esaten duen punturaino. Bideoa ikusi ahala, euren liburuko galderei erantzungo diete. (5')
- Denon artean zuzenduko dituzue erantzunak. (5')
- Ondoren, ikasleek txikiteoan ibiltzen den koadrila-mota gehiago ezagutzen ote duten komentatuko dute bost minututan; lehengo taldeetan jarrita lehenengo eta denen artean, bizpahiru minututan, ondoren. (10')

Ataza: txikitero-koadrilen arauak zehaztu

- Beste edozein giza taldetan bezala, txikiteroenean ere badira zenbait portaera-arau, oso nabarmenak batzuk eta erdi-erkutukoak gehienak. Ariketaren puntu honetan, arau horiek bilatzen eta zehazten saiatu behar dute ikasleek. Hasteko, ikasle bakoitzak zerrendako bederatzi arau horiek aztertuko ditu, benetakoak eta desegokiak bereizten ahaleginduz. (5')
- Ikasleek, hiruak bilduta, egin dituzten aukeren berri emango diote elkarri, izandako arrazoi, zalantza eta abarrak komentatuz. (5')
- Hirukoteek, beste bizpahiru arau ateratzen saiatu behar dute, arauen zerrenda osatzeko. (5')
- Aurkitutako arauak talde osoaren aurrean azaldu eta arrazoitu. (10')

Ataza: bideoa ikus-entzun eta rolen ezaugarriak idatziz zehaztu

- Orain, **1. bideo-pasartearen** jarraipena ikusiko dugu, lehen utzitako unetik aurrerakoa, alegia (Astebete beranduago...). Bertan koadrilakideen rolak dira hizpide. Ikasleei rol nagusiak eman eta, bideo-pasartea ikusi ahala, bakoitzaren ezaugarriak ohar moduan jasotzeko eskatuko diegu, hau da, ez daitezela esaldi osoak idazten saiatu, hitz gakoak baizik. Adibidez: taldeko liderra: kontrolatzailea, agintaria,...(5')

1. Atazaostea: bideoko txikiteroen arauak zehaztu

- Lehen hizpide izan ditugun bederatzi arauetatik bideoan zein islatzen diren erantzun beharko dute ikasleek binaka. Agertzen diren guztiak (2, 8 eta 9) ez dira ageri-agerikoak, inferitu beharrekoak baizik. Beraz, egin dezatela hiruak, iritzi ezberdinak konparatzearen. (5')

2. Atazaostea: nire herriko koadrila tradizionala

- Emandako puntuen gaineko gogoeta egingo dute bakarka, galderen ondoan oharrak hartuz, puntu bakoitzean eskatzen dena zuk ozenki azaltzen duzun bitartean. (10')
- Etxerako lana: Bakarka, oharrak idazlan bihurtuko dituzte, liburuan ematen den testuinguruaren arabera (zehatza/erdi formala/laburra = Anttonek egin duen moduan).





ATAZA: ETIOPIAN ERE TXAKURRAK OINUTSIK



Helburuak:

- Entzundakoaren xehetasunak jasotzea.
- Kultura bi (Euskal Herrikoa eta Etiopiakoa) kontrastatzea.
- Testu idatzia koherenteki ordenatzea.
- Aurkaritza eta konparazioa adierazteko baliabideak aztertzea.

Zertan den:

- Ohituren haritik tiraka, pittin bat aurrera egin eta interkulturalitatearen gaian murgilduko gara: elkarrengandik oso urruti dauden bi kultura erkatuko ditugu, Etiopiakoa eta Euskal Herrikoa. Etiopiako tribu bati buruzko bideo-dokumentala izango da abiapuntua. Lehendabizi, ulermen-ariketa egingo da, eta, gero, dokumental horri buruzko komentario bat irakurri eta aztertuko da, koherentziari eta aurkaritzazko nahiz konparaziozko baliabideei erreparatuz. Lanketa honekin ikastunitateko azken ataza urrun ta fits, betiko ta betiko zentratzeko eta errazteko gutxieneko arretaguneak emango dizkiegu ikasleei, ataza horretan ere antzeko komentario bat idazteko eskatuko baitzaie.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: gaia girotu abestia entzunez

- Ataza honetan interkulturalitatea izango dugu hizpide. Gure gizartea eta kultura urrutiko beste batekin erkatuko dugu. Gaian sartzeko, J.C. Perezen Nere herria * abestia entzun eta, hiruak jarrita, ikaslearen liburuko galderei erantzungo diete. (10')
- Galdetu ea kantaria ezagutzen duten, bere diskoak... Gehiago jakiteko, kantaren letra euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez aurkituko dute, eta horrekin batera J.C. Perezen musika-ibilbidearen gaineko informazioa dute ikasleek euren liburuan, 3.2 eranskinean. Irakur dezatela etxean.

! Oharra: Abestiaren letra gaztelaniara eta frantsesera itzulita dagoenez, esaiezu ikasleei irakurketa paraleloa egiteko, itzulpenaren gorabeherak aztertuz.

Atazaurrea: aurreikuspenak egin

Ariketa honetan, ETBn emandako bideo-dokumental baten bitartez, Euskal Herriko eta Etiopiako zenbait ohitura aztertu eta alderatuko ditugu, bi herrialdeen arteko alderik nabarmenenak agerian utziz.

- Hasteko, bertako egoeraren inguruko hausnarketa eta kanpoko kulturaren gaineko aurreikuspenak egitera bultzatuko ditugu ikasleak. Hori egiteko, ikasle bakoitzak bere grafikoa beteko du:
 1. Lehenengo zutabea, Euskal Herriari dagokiona, puntu bakoitza guztien artean komentatu eta eztabaidatu ostean beteko dute. Irakasleari dagokio puntu horien gaineko eztabaida gidatzea eta kontrolatzea. (15')
 2. Bigarren zutabea, Etiopiar buruzkoa, binaka jarrita beteko dute. Ez ahaztu aurreikuspenak direla; gauza segururik ez badakite ere, arriskatu egin behar dute eta zentzuzko hipotesia egiten saiatu. (5-10')

Ataza: aurreikuspenak egiaztatu

- **2. bideo-pasartea** ikus-entzun. Bideoa ikusi ahala, grafikoaren 3. zutabea beteko dute bakarka. Bideo-zatia 15 minutukoa da; beraz, ez da komeni behin baino gehiagotan ikustea. Horregatik, ez daitezela saia esaldi osoak hartzen, baizik eta datu hutsak. (15')
- Lehengo bikoteetara itzulita, aldera ditzatela jasotako datuak. (5')

* Perez, J.C. 1996. Nere herria In Hau berua. ELKAR



Prestaketa

- Taulan jasotako datuetan oinarrituta, bikote bakoitzak bospasei esaldi idatziko ditu Euskal Herriaren eta Etiopiaren arteko alderik, kontrasterik aipagarrienen berri emanez. Esaldiok adibideko esaldi-ereduari jarraiki idatziko dituzte, hau da, aurkaritza agerian utziz. (10')

Azalpena

- Amaitzeko, bikote guztiek, txandan-txandan, esaldi horiek irakurri eta azalduko dituzte talde osoaren aurrean. (10-15')

Feedbacka

- Guztion artean baloratuko dira esaldi horien egokitasuna eta zuzentasuna (esanahia eta forma), hau da, ea zuzen islatzen dituzten bi kulturen arteko desberdintasunak, batetik, eta ea aurkaritzazko esaldi horiek modu gramatikalean idatzita dauden, bestetik. (10-15')

Oharra: Zuzenketa honetan kontrasterako baliabide edo partikulen oparotasunari baino garrantzi handiagoa emango diogu esaldi barneko ordenari, hori baita garrantzitsuena eta zailena.

ZUZENKETA-ORRIA

	EUSKAL HERRIAN	ETIOPIAN	BIDEOAN
1. Zergatik ezkontzen gara gizakiok, gura dugulako ala, arau soziala izanik, ezkondu behar dugulako?			<ul style="list-style-type: none"> • Behartuta ezkontzen dira, gurasoek ezkontzeko ematen dituzte eta.
2. Emakume ezkondu bihurtzeak aldaketa asko dakar emakumearen bizimoduan? Zeintzuk?			<ul style="list-style-type: none"> • Emakumea senarrarena da. • Emakume ezkonduaren ardurak bereganatu: lur-alorrak landu, familia osoa zaindu; gorotzak eskobatu... • Ezin dira lagunekin dantzatu...
3. Zein bizi da hobeto, emakumea ala gizonezkoa?			<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeek mutil jaio nahi izaten dute, senarrak emaztea jotzen duelako, eta emakumeak lan gehiegi eta astunak egin behar dituelako. Beraz, gizonezkoa hobeto bizi da.
4. Emakumeek tratu txarrak jasatea ohitura da? Onartuta dago gizartean?			<ul style="list-style-type: none"> • Bai, ohitura da. Bestela alferkerian eta noraezean ibiliko dira. • Bai, onartuta dago.
5. Beharrezkoa da ezkontzeko, bai emakumeak eta bai gizonak, elkarren gogoko izatea? Zergatik?			<ul style="list-style-type: none"> • Ez, eta gainera, ohitura da neskari mutila ez gustatzea.
6. Haurrei opariak egiterakoan, nabaria da sexismoa?			<ul style="list-style-type: none"> • Semeentzako opariak: eskupetak. • Alabentzako opariak: iduneko eta besoetako burdinazko eratzunak; ahuntz-larruak
* Perez, J.C. 1996. Nere herria In:	Hau berua. ELKAR.		

2

Ikasleek aurreko ariketan ikusi duten dokumentalaren gainean kazetari batek egindako idazkia irakurri eta aztertuko dugu jarraian. Ariketa horretan testuaren koherentzia eta zenbait egitura sintaktiko-gramatikal aztertuko dira.

Atazaurrea: parrafo nahasiak irakurri

- Ikasleek nahasian dauden parrafoak irakurriko dituzte euren liburuan. (5')

Ataza: parrafoak ordenatu

- Ikasleek, binaka jarrita, parrafoak bata bestearen ondoren, hurrenkera egokian nola ipini eztabaidatuko dute. (5-10')

Feedbacka

- Guztion artean, irakaslearen gidaritzapean, bikoteek egindako hurrenkera-proposamenak erkatu eta eztabaidatuko dira. Garbi gera daitezela egin dituzten aukeren zergatiak, hau da, zein arrasto edo pistatan oinarritu diren batera edo bestera erabakitzeko. (10')

Oharra: Zuzenketa-orrian azpimarratuta aurkituko dituzu delako arrasto horiek.



ZUZENKETA - ORRIA

"DONOSTIAN DONOSTI ETA GOROSTIAN GOROSTI"

Jakina da herri bakoitzak bere ohiturak dituela. Bidaia batetik etorritakoan honelako komentarioak egiten ditugu: "ezagutu orduko konbidatzen zaituzte etxera" edo "ez dute apenas kalean bizimodurik egiten" edo "zinemarako konbidapena onartzen baduzu, harremana sendotzeko asmoa ari zara adierazten". Komentario hauen xedea beti bera izaten da: haiena, exotikoa eta gurea, normala, konparatzea. Helburu berak bultzatuko du gaurko ETBko saioen komentariorako tarte hau.

Bart Etiopia izeneko dokumentala ikusi ahal izan genuen. Etiopiarrek **baino** askeagoak gara? Hala ematen du ezkontza kontuetan. Euskal Herriko jendea, **gehien**etan behintzat, nahi duelako eta nahi duenarekin ezkontzen da. Hain, **ordea**, behartuta ezkontzen dira, gurasoek ezkontzeko ematen dituzte eta.

Etxeko lan kontuetan ere nabaria da sexismoa. Emakumearen rolak, ezkondu eta senarraren menpe jarritakoan, zeharo aldatzen dira: lur-alorrak landu behar ditu, familia osoa zaindu eta gorotzak eskobatu. Gure gizartea, aldiz, ez da **hain** sexista. Ala bai? Egin beza bakoitzak gogoeta.

Nor bizi da **hobeto**, emakumezkoa ala gizonezkoa? Hango gizonak andrea jotzea ohitura da; **bestela**, noraezean ibiltzen omen da emakumea, alferkerian. Horrexegatik, hain zuzen ere, Duka eta hango gainontzeko neskek nahiago lukete mutil jaiotakoak. Argi dago andrea ez dela gizona **bezain** ondo bizi. Eta, gure artean? **Hain** begibistakoa da batzuentzat besteentzat **baino** erosoago izatea bizimodua? Ala, **ostera**, etxe bakoitzeko egoera baloratu beharko litzateke?

Nor ateratzen da galtzaile eta nor irabazle bi kultura hauen arteko konparaketan? Erreflexio honekin amaitu gura nuke: sexismoa eta matxismoa **baino** okerragoak ez ote dira etnozentrismoa eta intolerantzia? Ala, **bestela**, zer adierazi nahi dute Duka eta bere lagunaren barre algara amaigabeek, egoera txarrari aurre egiteko terapia ote ala guk hara eramandako munstruok apurtzeko tresna? Umberto Eco Arrosaren Izena liburuan ematen digu erantzuna: sakrilejioa da irribarrea bera ere, beldurraren etsai **nagusia**.



Koherentzia:

- Testuko lerroakadak ordenatzeko pistak azpimarratutakoak dira. Hiru eta laugarren lerroakadak ordenatzea arbitrarioa litzateke, ezkondu hitza gehituko ez balitz. Pista hau semantikoa da eta ez linguistikoa: hirugarren lerroakadak bigarreneko gaia bera du, hots, ezkontzaren gaia, eta laugarrenean, ordea, jotzearen kontua aipatzen da.

Konparazioa eta aurkaritza:

- Horretarako baliabide linguistikoak letra lodiz azaltzen dira.

Gramatika eta diskurtsoa: konparazioa eta aurkaritza

- Irakurri berria duten testu horretan behin eta berriro azpimarratzen dira Euskal Herria eta Etiopiaren arteko aldeak eta kontrasteak. Esaiezu Donostian Donosti eta gorostian gorosti testua berriro irakurtzeko eta erreparatzeko testu-zati horiei, konparazioak eta kontrasteak jasotzen dituztenei, alegia. **(5')**
- Binaka jarrita, euren liburuko taula beteko dute, testuko hainbat hizkuntz baliabide sailkatuz. Taularen ezkerreko zutabean konparazioak egiteko baliabideak jasoko dituzte, eta, eskuinekoan, aurkaritza adierazteko erabiltzen direnak. **(10')**
- Guztion artean, irakaslearen gidaritzapean, arbelean jaso eta komentatu egingo dira aurreko puntuko baliabide horiek guztiak. **(10-15')**
- Esaiezu ikasleei I. Zubiriren gramatika-liburuan** azalpen zabalagoa eta sistematizatuagoa aurkituko dutela. Baten batek interesik balu, irakur dezala etxean bere kabuz.

! Oharra: Ikasleren batek gaiarekin lotutako beste zerbait irakurtzeko gogorik badu, honako hauek dituzu eskura, ariketa eta guzti:

- Neska jaiotzea, sarri arrisku larrian bizitzea HABE aldizkaria 274. zenb. (19-21.orr.)
- Hiltzear dauden kulturak HABE aldizkaria 263. zenb. (4-5.orr.)



IRAK.LIB. 4.1. Musika-estiloak

Musika-estiloek euskal kulturaren eta musikagintzan zer-nolako oihartzuna duten komentatu beharko dute.

IRAK.LIB. 4.2. Ohiturak lege

Mintzasai informala eta irekia gizarteko ohitura desegokien gainean.

IK.LIB. 4.3. Baldintzak birpasatzeko

Ariketa honetan, ikasleak baldintza birpasatzeko prozedura bat aurkituko du. Ikasleek behin baldintza hipotetikoa ikasi eta gero, kasu askotan honako egoera honetara heltzen dira: baldintzaren gainjeneralizaziora, behar denean zein behar ez denean erabiliz, batetik, eta erreala eta hipotetikoa nahastuz, bestetik.

** Zubiri, I.; Zubiri, E. 1995 Euskal gramatika osoa. Didaktiker. 278-286.orr (konparatiboak) eta 741-747. orr (aurkaritzakoak).

Helburuak:

- Koadrilen jokamoldeak aztertzeko inkesta bat prestatzea, modu eskematikoan emandako puntu bat egoki garatuz.
- Besteengandik koadrilaren gaineko informazioa jasotzea, inkestaren bidez.
- Inkestaren emaitzen sintesi idatzia egin eta ondorio batzuk ateratzea.

Zertan den:

- Giza harremanen gaia koadrilen mundura ekarriz, ikasleei inkesta bat prestatzeko eskatuko zaie, koadrila ezberdinen jokamoldeak aztertu eta ondorio batzuetara iritsi ahal izateko. Amaieran, ikasle bakoitzak testu bat idatziko du bere koadrila eta inkesta egin dion ikaskidearena alderatuz. Testu hori, bistan da, C atazan aztertu behar izan dutenaren antzekoa izango da, alderaketan eta kontrastean oinarritutakoa.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Inkestaren helburua koadrilen ezkutuko arauak aztertzeko da. Ezertan hasi aurretik, lehendabiziko lana inkesta prestatzea izango da. Abiapuntu gisa, koadrila guztietan nola edo hala erabaki behar izaten diren zenbait konturen aipamena egingo du irakasleak, eskematxoaren laguntzarekin.
Adibidez: “Koadrila batzuetan opariak egiteko ohitura daukate. Inkestaren bidez, ea hori araututa dagoen jakin behar duzue, ea beti lagun bera arduratzen den...” (5’)
- Eskematxoaren azalpena bukatutakoan, ikasleei puntu berriak proposatzeko aukera emango diegu. Eztabaida dezatela, binaka jarrita; eta, proposamenik bururatu bazaie, azal dezatela guztien aurrean. (5-10’)

Ataza: inkestako galderak prestatu

- Behin eskema osatu eta gero, hurrengo lana puntu guztiak jorratzea izango da. Lana astunegia egin ez dadin, bikoteka jarriko ditugu ikasleak eta bikote bakoitzari puntu baten ardura emango diogu. (Eskematxoan puntu asko baleude, edota taldean ikasle gutxiegi, bina puntu eman bikoteei). Puntuen jorretarako erabil daitezkeen tekniken (galdera irekiak, aukera anitzekoak, eta abar) azalpena egingo dugu.

! Oharra: Ikusi ikaslearen liburuko adibidea. (10-15’)

Feedbacka

- Gardenkiz baliatuz, egindako lana aurkeztu beharko du talde bakoitzak beste guztien aurrean. Guztion artean baloratu eta egin beharreko zuzenketa guztiak egin, forma aldetikoak nahiz egokitasunari dagozkionak. (20-30’)
- Gardenki guztiak bildu eta inkestaren azken bertsio txukundu eta osatua prestatuko da. Lan hori irakasleak egin lezake klasetik kanpo, edo ikasleek klasean bertan, gardenkiak zuzendu ahala.

2

Ataza: inkestari erantzun eta inkesta beste talde batean egin

- Inkesta honen kopia bana eskuetan dutelarik, ikasleak hiruak bildu eta, modu informalean, inkestari erantzunango diote, nor bere koadrilaren gorabeherak azalduz. (20-30’)
- Bukatutakoan, ikasleak euskaltegiko beste talde batera joango dira hango ikasleren bati inkesta egitera. Ikasleek erantzunak txukun antzean jasotzen saiatu beharko dute, datu horiek ondorengo ariketarako ezinbesteko abiapuntu baitira. (10-15’)



3

Ataza: emaitzak aztertu eta sintesia idatzi

- Inkestok bukatu eta berriro klasera itzulitakoan, jasotako datuen azterketa eta sintesia egitea proposatzen dugu. Horretarako, ikasle bakoitzak testu bat idatzi beharko du bere koadrila inkesta egin dion ikaslearen koadrilarekin konparatuz. C atazan aztertutako testua (Donostian Donosti eta gorostian gorosti) erabil dezakete eredu edo erreferentzia gisa. Beraz, bi koadrilen berri emango dute, alderaketak eginez, kontrasteak azpimarratuz eta euren balorazioa edo iritzia tartekatuz, ahal den neurrian. **(30-40')**

! Oharra: Beharbada testu horiek etxean idaztea litzateke egokiena, inolako presiorik gabe, norik bere erritmoan. Horretarako, ikaslearen liburuan dute jarraitu beharreko urratsen zerrenda.

Feedbacka: idatzitako sintesien zuzenketa

- Ikasleek, binaka jarrita, trukatu egingo dituzte testuak eta ikaskidearen testuaren zuzenketa/balorazioa egiten saiatuko dira. Besteak beste, honako puntuoi begiratu beharko diete: testuaren barne-antolaketa (koherentzia), kontrastea eta konparazioa nola bideratu diren, informazioaren aberastasuna, eta abar. **(10')**
- Guztion aurrean, irakaslearen gidaritzapean, balorazio horiek plazaratu eta bide batez ikasleek izan ditzaketen zalantzak eta galderak argitzen saiatu. **(10-15')**



IRAK.LIB. 4.3.

Pello Jauregi, gazte-koadrilak euskalduntzen (HABE aldizkaria, 264. zk.)

Edozein artikuluren lanketarako balio duen PROZEDURA ezagutaraziko diezu ikasleei, gero euren kabuz irakurtzen has daitezten.

IK.LIB. 4.4.

Haserrealdietarako espresioei buruzko azalpen didaktikoa aurkituko dute ikasleek euren liburuan

4.4. material osagarrian. Haserrealdietarako espresioak ez badituzte orain arte landu, hemengo materiala oso xumea denez, bestelako ariketekin osatu beharko zenuke.

1. BIDEO-PASARTEAK

ATAZA: ZURRUTEAN



1. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 8'39"

1. ZATIA

KATTALIN Ba, hiru zurito, hirurogei hogerleko.

IDOIA Hirurogei?

KATTALIN Betiko moduan.

XABIER Ba, nik hogeï bakarrik ditut.

IDOIA Ba, nik gutxi daukat.

KATTALIN Konpondu beharko da, eh?

IDOIA Aizue, txinoetara jokutzen dugu, eta ya est .

XABIER Hori, benga.

LEIRE Bakoitzak hiru hartu. Idoia, zu hasten zara, eh?

KATTALIN Zenbat kopla erronda miserable bat ordaintzeko!

XABIER Kattalin, gu ikasleak gara. Benga, hasi.

KATTALIN Batzuetan.

XABIER Bost.

LEIRE Hiru.

IDOIA Joder, ni beti galtzen, aizu!

LEIRE Bueno, hurrengora arte!

KATTALIN Bai, ikusi arte!

MICHAEL Zergatik egin duzu hori?

KATTALIN Zer egin, baina?

MICHAEL Ba, musika kendu.

KATTALIN A, zuk ez duzu ezer ulertzen, ezta, Michael? Hara, begira, zortziak bost gutxiago dira, eta zortzietan beste koadrila bat etorriko da, klasiko-klasikoa, eta musika ez du batere gustukoa.

MICHAEL Hortaz, koadrila guztiak ez dira berdinak! Klasikoak, modernoak...

KATTALIN Tradizionalak, intelektualak, terminalak... eta badakizu, bakoitzarekin modu batean ala bestean jokatu behar izaten da.

MICHAEL Oso konplikatu da zuen txikiteo hau. Astebete daramat ikerketa antropologiko hau bukatu nahian eta uste dut Renora itzuliko naizela ia esku hutsik.

KATTALIN Esan nizun nik, bada. Hamar egunetan ezin direla euskal txikiteoaren barruko trikimailuak argitu.

ANTTON Arratsaldeon! Hau da hego haizetzarra dabilena!

KATTALIN Arratsaldeon!

ANTTON Aupa, Michael Zer, oraindik hemen? Eta noiz abiatuko zara, bada, Estatu Batuak aldera?

KATTALIN Etzidamu.

ANTTON Etzidamu.

KATTALIN Eta euskaldunon dibertitzeko moduak-eta, jakin barik joan beharko du, bada.

ANTTON Bai? Eta hori, zer, arazoren bat edo...



KATTALIN

Bai, begira, koadrilen gaineko ikerketa antropologiko bat egin nahian dabil, baina ez du astirik izan bukatzeko. Eta horixe da arazoa.

ANTTON

Eta joan beharra. Ba, ez dakit... ba, agian, hori konpon genezake.

KATTALIN

Zelan, baina?

ANTTON

Ba, Renoko Unibersitatean Internet izango duzue, jakina.

MICHAEL

Bai.

ANTTON

Ba, hori, ba, zuk handik Internet-aren bidez eskatu zer ikertzea nahi duzun, guk tabernan ikerketa gauzatuko dugu, eta gero informazio guztia berriro, Internet-aren bidez bidaliko diogu.

MICHAEL

Oso ideia ona da hori. Nik batik bat jakin nahi nuke, ba, gizarte talde bakoitzaren jokabidea, hierarkia, lurraldetasuna eta antzeko gauzak.

ANTTON

Bai, koadrilen barruko dinamika hori, ezta? ezagutu nahi duzu.

MICHAEL

Hori, hori. Hori, hori.

ANTTON

Esate baterako, ba... zer izan daiteke? Esate baterako, fenomeno berri baten aurrean koadrila bakoitzak nola jokatzen duen.

MICHAEL

Bai. Adibidez, ba, musika altu samar jarriz gero, ba, talde klasikoaren jokabidea.

ANTTON

Ba, moldatuko gara. Ezta, Kattalin?

KATTALIN

Nik pentsatzen dut egiteko modua izango dugula, ezta?

ANTTON

Bai. Lasai, Michael, moldatuko gara.

2. ZATIA

ASTEBETE BERANDUAGO

Urriak 25. Gaurko helburua: xede-taldea elementu organikoa bezala ezagutzea, kohesio elementuak, bakoitzaren funtzioa talde barruan.

TXIKIT 1

Bakea behar dugu. Ezingo dugu basoerdi bat lasai hartu, ala?

Taldeko liderra, txikiteroaren arau eta baldintzak kontrolatzen dituen, agintzeko gaitasun naturala.

Aldaketen aurrean erreakzio azkarrak eta zehatzak izaten ditu.

...

Tabernariak, bezeroei ezer galdetu gabe, nori bere gustuko ardoa zerbitzatzuz euren estima lortu du.

TXIKIT 2

Ba al dakizue Bilboko alkateak trafikoko arintzeko formula aurkitu duela?

Txiste-kontalaria. Egoera eta giro eskasa denean zer esana izaten duena...

TXIKIT 3

Baratxuriarena.

TXIKIT 2

Agindua eman omen die trafikoko zinegotzi eta langileei baratxuriak (Bizkaian berakatzak) errepide bazterretan ereiteko. Eta badakizue zergatik? Zirkulazioa ikaragarri hobetzen duelako.

Txiste-kontalariak koadrila sozializatzen laguntzen du, tarteka beste lagun batzuk taldera ekarriz.

TXIKIT 4

Hamar duro! Gezurra dirudi. Nik gogoan dut basoerdiak duro bat balio zuenean.

TXIKIT 3

Duro bat? Bi pezeta ere ezagutu dugu, 70ean edo...

TXIKIT 2

Eta pezeta batean ere.

TXIKIT 1

Guk ez. Pezeta batean txikitoa sekulan ez.

TXIKIT 2

Nola ezetz? Apostua orain dela 30 urte horrela zela.

TXIKIT 1

Ez duk posible.

TXIKIT 2

Horrela banatzen ziguten eta.

TXIKIT 1

Nola? Non? Zein herritan? Esaidak, taberna honetan?

TXIKIT 2

Horixe!

TXIKIT 1

Egia al da Kattalin?

KATTALIN

Nik ezagutzen dudana da hogereko batean.

Gai jartzailea. Taldekideen arteko eztabaidak bideratzen ditu. Psikologia handiko pertsona izaten da eta herriko albisteak irakurtzen ditu egunero egunkarietan.

TXIKIT 1

Et, et, et. Berrito ez ordaindu. Oraingoan Inaxioren txanda da eta.

TXIKIT 2

Komunean dago. Hurrengo biak berak ordainduko ditu eta kito.

TXIKIT 4

Inaxiok? Bai, zera!

Koadrilako zuhurra. Ordaintzerakoan beti barratik urruti egoten da. Balio terapeutikoa du taldean: honen lepotik egiten dituzten kritikek eta komentario bihurriek gainontzeko taldekideen artean harmonia izaten laguntzen dute.

TXIKIT 2

Lasai, Inaxio! Neronek ordainduko dut. Hurrengo biak zuk ordaindu.

TXIKIT 3

Beno, oso ondo, baina bihar izan beharko du. Orain etxera joan beharra daukat. Bederatzietan bizilagunen bilera daukagu eta konprenituko duzue. Barkatu, eh! Bueno, agur, bihar arte!

TXIKIT 4

Ikusten? Pentsio-plan baterako ari direla aurrezten esan zidan atzo. Iaz, kotxea finantziatu genion, eta orain, urrezko jubilazioa? Ni nazkatua nago Inaxiorekin.

TXIKIT 2

Okerrena bere emaztea da. Hark esana egiten ditu Inaxiok gauza guztiak...

KATTALIN

Orain ere Mertxeren ala?

TXIKIT 2

Hara! Hara! Atera da orain ere Mertxeren alde.

Honekin amaitzen dugu gaurko behaketa. Bihar taldearen lurraldetasuna aztertzen saiatuko naiz: nondik nora ibiltzen den, ordutegia, leku bakoitzean kokatzeko ohiturak, eta horrelakoak izango dira aztergai.



ATAZA: ETIOPIAN ERE TXAKURRAK OINUTSIK



2. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 10'10"

ELKAR

Bilindaren loba, Duka, ez da oraindik ezkondu, baina bere amaren heriotzetik, emakume ezkondu baten erantzukizun guztiak hartu ditu bere gain, baita bere aita, nebak eta ahizpak zaintzekoa ere.

DUKA

Esne-kalabazak keztatu eta neure aitaren ganaduari edaten eman diot, abereen gorotzak garbitzeaz ere arduratzen naiz. Orain arte mutil bat bezala bizi izan naiz. Nire laguna joan egin da. Ni bezalakoa zen. Bere aitak ezkontzeko eman zuen. Orain ezkondu dago eta haurra izan behar du. Mundu guztiarentzat da berdin. Semeei aitak eskupeta erosten die. Niri burdinazko eraztunak erosten dizkit. Batzuk idunekoa dira, beste batzuk besoan daramatzat. Hauexek dira nere armak. Berak ahuntz-larruak ematen dizkit jantzi ditzadan eta esaten dit: “zuk niretzat lan egin duzu”. Soinean daramatzadan gauza guzti hauek opariak dira. Nik ez dut ezer erosi, ez dut burdinazko eraztunik erosi. Garbitu, janaria prestatu eta abarreatik lortzen dudana saria da. Beraz, zeren kezu egon behar dut? Aitagarrebari emana izan naiz.

ELKAR

Egunero Duka eta gainontzeko emakumeek beren etxeak uzten dituzte haranean dauden alorretan lan egiteko. Duka eta Gardi lehengusina ere, beren gurasoen bitartez ezkontzarako hitz emanak izan dira, nahiz eta emazte bihurtu baino lehen hilak edota urteak ere igaro.

DUKA

Nire aitak dio lehenbailehen ezkondu behar dudala. Baina nik ez dut gauza bera esaten. Nik nahi dudana neure lagunekin dantzatzeko egin eta jolastea da.

GARDI

Ondo dago neska izatea. Nik jolasera eta dantza egitera joan nahi dut. Horixe da dena.

ELKAR

Eta emazte zarenean, zer?

GARDI

Ja, ja. Uuuuuu! Orduan zure senarrarena zara. Gorotzak eskobatu eta kapa handi bat jantzi behar duzu. Aitagarrebari kafea prestatu eta gorotzak garbitu behar dituzu. Horixe egiten dute emazteek.

ELKAR

Eta orduan ez duzu dantzatzera joaterik?

GARDI

Ez, ez duzu. Ezin duzu gainerako neskekin dantzatzera joan. Beraiekin hitz egin dezakezu soilik. Emakume ezkondu bihurtzen zara.

ELKAR

Emakume ezkondu guztiek euren basarto-alorrek lantzen dituzte. Dukak amaren heriotzeaz geroztik bere lurra dauka. Uzta-garaian zehar berak antolatzen ditu lan-taldeak. Nebak eta honen lagunak ere abereak zaintzeari utzi egiten diote berari laguntzearren.

DUKA

Hainbeste ehotzeaz eskuetakoko mina daukadanean neure buruari galdetzen diot: “zergatik ez ote nintzen mutil jaioko?” Nagusitzen zarenean, zeure gurasoek ezkontzeko ematen zaituzte eta gizon horrek jo egiten zaitu. Orduan zera diozu, “mutil jaio izan banintz!”. Ehotze eta ur garraio-lanak astunak dira. Batzuek hori diote, besteek ez. “Mutil jaio izan banintz!” esaten dute.

ELKAR

Bonko, gustatuko litzaizuke emakume izatea?

BONKO

Ja, ja, ja. Ez, ez litzaizuke gustatuko emakume izatea.

ELKAR

Ez deritzozu ona emakume izateari?

BONKO

Ez, Emakumeak kolpatuak izaten dira, gizonak ez. Haiek beti izaten dira kolpatuak ezkontzen direnean, dantzetan...

ELKAR

Zuk zeure emaztea joko duzu?

BONKO

Noski. Ohitura da. Bera gaiztoa bada, jo egingo dut. Jotzen ez baduzu, ez dizu jaramonik egingo, beterrietara joanda noraezean ibiliko litzateke. Jotzen ez baduzu, ez da ez abel-taldeen, ez landez arduratuko. Jotzea da konponbide bakarra. Jotzen baduzu, zure beldur izango da. Orduan abere eta lurrez arduratuko da, bestela harro bilakatuko da eta hortik zehar noraezean ibiliko da. Jotzen baduzu, dena joango da ondo.

ELKAR

Zuk eman berri duzu ezkontzeko hitza. Gogoko zaitu zeure emazteak?

GIZONA 1

Niri gustatu egiten zait neure emaztegaia, baina zergatik gustatu beharko nintzaioke ni?



- ELKAR** Zergatik ez?
- GIZONA 1** Zergatik ez natzaion gustatzen? Ba, ohitura delako. Berak ez du oraindik ezkondu nahi. Egia esan, nik uste dut gogoko nauela. Bai, gustatu egiten natzaio edo, azkenean, gustatuko natzaio. Orain ezezaguna naiz, beraren ustez pertsona gaiztoa naiz, nire izatea bera da txarra.
- ELKAR** Indarrez eman al dizu hitza?
- GIZONA 1** Ba, bai.
- ELKAR** Nolatan?
- GIZONA 1** Jarraiki eta harrapatu egin nuen.
- ELKAR** Zer gertatuko litzateke zeure arreba lapurtuko balizute?
- BONKO** Hori txarra litzateke, guk geure arrebak babestu egin behar ditugu, Kevi edo Susana lapurtuko balizkigute, gure guraso eta izeko-osabek jo egingo gintuzkete. Beraz, guk nebok, haiek zaindu egin behar ditugu. Edonora doazela lagundu egin behar ditugu, ahuntzak bailiran zaindu.
- ELKAR** Sardo, ezkontzen zarenean, gustatuko litzazuke zure senarrak beste emazte bat edukitzea?
- SARDO** Bai.
- NESKA** Niri ez litzaidake gustatuko beste bat egotea. Ez da ona bi egotea... zoratu egingo ginатеke! Agian beranduago, zahartzean. Lan guztia ezin egin dezakedanean. Geroago gauzak ondo balihoaz, lagun diezadan bigarren emazte bat hartzeko esango nioke. Baina, orain ez.
- DUKA** Behinola oso neska gazte bat ezkondu omen zen. Senarrak ez zuen berarekin lo egin nahi. Gau ez gizona bakarrik geratzen zen beraren lotarako larruaren barruan, aita edo neba bat bailitzan. Gau batez, neskak kaka pixka bat ipini zuen beraren lotarako larruaren barruan. Gero senarra etorri zen eta etzan egin zen. Emaztea senarraren ondoan jezarri zen. Emazte: “ze usain da hori?” esan zuen. “Kaka zati txiki bat” erantzun zion neskak. “Zer dauka txikirik kakak, ba?” galdetu zion senarrak. “Zer dauka txiki ni bezalako emakume batek” erantzun zuen. Emazteak seme-alabak eduki nahi zituen, baina gizonak uko egiten zion larrua jotzeari bera oso txikia zelako. Harrez gero senarrak emaztearekin lo egin zuen.



3. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2'40"

MUSIKA-ESTILO EZBERDINETAKO KANTAK.

KANTEN ERREFERENTZIAK:

1. Lete, X. 1991 Habanera In Eskeintza. Elkar.
2. Lete, X. 1976 Haur andaluz bati sehaska kanta In Kantatzen noazu... Elkar.
3. Negu Gorriak 1990 Bertso hop In Negu Gorriak. Oihuka.
4. Zubiria, A. 1995 Biyotz erituaren runba In Amonaren mengantza. IZ.
5. EGAN 1990 Ardo gorri naparra In Erromerian. IZ.
6. Joselu anaiak 1989 Ay, Anselma In Araitik Jaliskora. IZ.
7. Donostiako Orfeoia 1979 Boga-boga In Donostiako Orfeoia Abesten du / El Orfeón Donostiarra canta folklore vasco. Discos Columbia.



ATAZA: ETIOPIAN ERE TXAKURRAK OINUTSIK 50'

1. MUSIKA-ESTILOAK

Helburua:

- Musika-estilo ezagunenek euskal musikan duten lekua eztabaidatzea.

Zertan den:

- Herrialde eta kultura ezberdinetako musika-estiloek gaur egungo euskal kantagintzan zer-nolako eragina eta presentzia duten ikusten saiatuko gara ariketa honetan.

PROZEDURA:

1


Atazaurrea

- Lehendabizi, binaka jarri eta bizpahiru minututan bururatzen zaizkien musika-estiloak idatziko dituzte paper batean, hamar bat sarrerako zerrenda osatu arte. (5')
- Irakaslearen gidaritzapean, bikote guztien ekarpenak aintzat hartuta, zerrenda bakar bat, zabalagoa eta osoagoa, egingo da arbelean. (10')

Ataza: musika-estiloak diagraman kokatu

- Ondoren, berriro lehengo bikoteetara itzuli behar dute. Orain bikote bakoitza ondorengo diagrama hori betetzen saiatuko da. Aurreko puntuan arbelean jasotako musika-estilo bakoitza diagramako lerro horretan kokatu behar dute, euskal kulturatik urrun ala gertu ikusten duten adieraziz. (5')

Adibidez:



Horrek esan nahi du jazza euskal kulturatik urrun ikusten dutela, hemen horrelako musikariek egiten ez delako edo ez zaigulako gustatzen eta abar. Bestalde, folka oso geurea, hurbilekoa izango litzateke, horren arabera.



- Diagrama prestatutakoan, beste bikoteren batekin trukatu dute. Azter dezatela beste bikotearen diagrama, eta, zerbaitekin ados ez badaude, idatzi zertan ez dauden ados eta zergatik (oharra: desadostasun nabarmen samarrak bakarrik hartuko ditugu kontuan). (10')

Feedbacka

- Irakaslearen gidaritzapean, desadostasun horien berri eman eta guztion artean komentatu eta eztabaidatzeko aukera izango dute. (10')

Atazaostea

- Eztabaida bukatutakoan, zenbait euskal kantaren zatiak entzungo dituzte. Kanta horietako batzuk ezagunak izango dituzte, seguruenez, baina beste batzuk, beharbada ez. Ikasleen lana, binaka bildu, eta, abesti horiek nork kantatzen dituen eta zein musika-estilotakoak diren asmatzea izango da. Ez daitezela larritu, erantzun guztiak geuk ematen baitizkiegu. Nahikoa dute erantzunok elkarrekin lotzarekin. Adibidez: (5')

Haur andaluz bati sehaska-kanta X. Lete flamenkoa



ZUZENKETA - ORRIA

1. Negu Gorriak ▶ Bertso hop ▶ Rapa
2. Egan ▶ Ardo gorri naparra ▶ Reggea
3. Joselu Anaiak ▶ Ay, Antselma ▶ Tex-mexa
4. X. Lete ▶ Habanera ▶ Habanera
5. Amaia Zubiria ▶ Biyotz erituaren... ▶ Runba
6. Donostiako Orfeoia ▶ Boga-boga ▶ Korala
7. X. Lete ▶ Haur andaluz bati sehaska-kanta ▶ Flamenkoa

- Amaitzeko, denon arteko zuzenketa egingo da irakaslearen laguntzarekin. Ariketan agertu diren abesti eta abeslari horiei buruz norbaitek zerbait baldin badaki besteez ez dakitena, azal dezala beldurrik gabe, denak egongo dira jakinminez eta.(15')



IKASLEAREN FITXA

■ Zerrenda bat osatuko duzu bururatzen zaizkizun musika-estiloekin

Musika-estiloak

.....

.....

.....

■ Aurreko puntuan bildutako musika-estilo bakoitza ondorengo diagramako lerro honetan kokatu behar duzu, euskal kulturatik edo euskaratik urrun ala gertu ikusten duzun adieraziz.

euskal
kultura



■ Diagrama prestatutakoan, beste norbaitenarekin trukatu duzu. Aztertu diagrama hori, eta, zerbaitekin ados ez bazaude, idatzi zertan ez zauden ados eta zergatik (oharra: desadostasun nabarmen samarrak bakarrik hartuko ditugu kontuan).

.....

.....

.....

■ Zenbait euskal kantaren zatiak entzungo dituzu orain. Kanta horietako batzuk ezagunak izango dituzu, seguruenez, baina beste batzuk, beharbada ez. Zure lana abesti horiek norik kantatzen dituen eta zein musika-estilotakoak diren asmatzea da. Ez larritu, erantzun guztiak geuk ematen baitzikizugu. Nahikoa duzu erantzunak elkarrekin lotzearekin. Adibidez:

Haur andaluz bati sehaska-kanta X. Lete flamenkoa

- | | | |
|----------------------|-------------------------------------|------------|
| ▶ Negu gorriak | ▶ Biyotz erituaren... | ▶ Rapa |
| ▶ Egan | ▶ Ay, Antselma | ▶ Reggea |
| ▶ Joselu Anaiak | ▶ Boga boga | ▶ Tex-mexa |
| ▶ X.Lete | ▶ Haur andaluz bati sehaska - kanta | ▶ Runba |
| ▶ Amaia Zubiria | ▶ Ardo gorri naparra | ▶ Korala |
| ▶ Donostiako Orfeoia | ▶ Bertso hop | ▶ Habanera |
| | ▶ Habanera | |





ATAZA: ETIOPIAN ERE TXAKURRAK OINUTSIK

2. OHITURAK LEGE 50'

Helburua:

- Ohitura askoren egokitasunaz eztabaidatzea, norik bere iritzia azalduz.

Zertan den:

- Gure gizartearen ikuspegitik bitxi eta desegoki izan daitezkeen zenbait ohitura eta jokamolde aztertuko ditugu ariketa honetan. Ikasleek euren iritzia modu informal eta irekian agertu eta eztabaidatzeko aukera izango dute. Irakasleak, moderatzaile izango baita, erabaki beharko du zenbateraino luzatu ariketa, nola kontrolatu parte hartzeko txandak, gaiaren tratamendua nola zentratu eta abar.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Hasteko, ikasleek euren orrian dituzten puntu guztiak irakurriko dituzte. Puntu horiek hainbat ohitura bitxiren berri ematen digute, eta bitxitasun hori dela medio nahikoa zeresan emango dute; horretarako daude, hain zuzen ere, maila abstraktuagoan egin nahi den eztabaida-saio horren akuilagarri edo. (5')
- Ondoren, ohitura horien bitxitasun maila erabakiko dute, 1etik 3ra ohitura bakoitzari balore bat emanez. (5')
- Ikasleek, binaka jarrita, beste bi ohitura bitxi, hemengoak nahiz kanpokoak, idatziko dituzte zerrendan. (10')

Ataza: eztabaida

- Orain, eztabaida-saioari ekingo diogu. Irakaslea izango da, esan bezala, moderatzailea. Gaiari nondik heldu izan dezaten, honako zerrenda hau proposatzen dizuegu: (15')
- Ohitura eta arau hitzen definizioek onartzen dituzte txarrak izan daitezkeen portabideak?
- Zer funtzio du ohiturak? Zertarako balio du?
- Ezinbestean mantendu behar dira? Bere horretan mantendu behar ditugu geure herrietako ohiturak ala horien eboluzioa onartu behar dugu?
- Euskal Herriko, edo zeure herriko, zein ohitura aldatuko zenuke?
- Zerrendan zein ohitura bitxi gehiago sartu dute?

! Oharra: Esan beharrik ez dago zerrenda hau ez dela itxia eta irakasleak bere gisara moldatu edo alda dezakeela, eztabaida-saioaren hariak hala eskatuko balu.

Feedbacka

- Eztabaida bukatutakoan, irakasleak antolatuko du feedback saioa. (15')



IK.LIB. 4.2.

Ikasleek B atazaren bukaeran euren liburuko 4.2. material osagarria egin ez badute orain duzu une didaktiko egokia ataza honen feedbackaren bukaeran erabiltzeko.

IKASLEAREN FITXA

Hemen duzu gizarte edo kultura desberdinetan gertatzen diren hainbat ohituraren zerrenda. Bitxiak iruditzen al zaizkizu? Bai? Ez?

Irakurri eta beheko biriltzean jarri zenbaki hauetako bat ohiturak zuretzat duen bitxitasuna adieraziz.

1 **ARRUNTA**

2 **BITXIA**

3 **OSO BITXIA**

- Afrikako herrialde gehienetan, esaterako kapsikien artean (Kamerungo triburik zaharrena), derrigorrezko gertatzen da tribuko buruari errespetuzko bisita egitea, eta normalean bere etxera gonbidatzen zaitu ondoren.
- Mendebaldeko kulturetan ohikoa da gizona ile laburra eramatea, gonarik ez janzea... Emakumezkoek, aldiz, prakak eramanez ditzakete eta depilatu egiten dira.
- Zergatik ez ote dute hemengo pilotariek bizarrik?
- Indian behiak jendea baino hobeto bizi dira. Inork ezin ditu ez hil, ez jan. Kanean euren nahi duten moduan ibiltzen dira harantz eta honantz.
- Musulmanek, beste askoren artean, honako arauok dituzte: ezin dute txerrikirik jan, bizitzan behin Mekara joan behar dute, lapurrei eskuak moztzen dizkiete...
- Konturatu zarete inoiz geure etxeetan nork bere jezartzeko lekua dugula?
- Ijitoentzat oso garrantzitsua da emakumearen birjintasuna. Horregatik, hainbat andre arduratzen da ezkongai birjina denentz egiaztatzen.
- EEBBetako hainbat tokitan, txarto ikusita dago norbaiten etxera joan eta zerbait jatea. Jakina, bazkaltzera-edo gonbidatzen ez duten bitartean.
- Bai Euskal Herriko hainbat herritan eta bai hemendik kanpoko beste hainbestetan ere, emakumeek eta gizonen euren lekua dute elizan; esate baterako, emakumezkoak eskuinean edo behean egoten dira; gizona ordea, ezkerrean edo koruan.
- Afrikako kultura asko eta askotan neska-mutilek inimiziazko erlazioz gain, beste makina bat errito eta ohitura jasan behar dute: neskatoei ablazioa edo sexu-erazpena egiten dieten bitartean, mutikoei zirkuntzisia edo erdaintzisa.

Gehitu itzazu beste bi ohitura bitxi zerrendara. Ohiturak izan daitezke hemengoak (kanpotarrentzako bitxiak izan daitezkeenak) edota kanpokoak (atzerriko bidaietan ezagututakoak, dokumentaletan ikusitakoak...).

Orain, eztabaida-saioari ekingo diogu!

ATAZA: URRUN TA FITS, BETIKO TA BETIKO

3. PELLO JAUREGI, GAZTE-KOADRILAK

EUSKALDUNTZEN 50'

Helburua:

- Horretarako prozedura bat proposatuta, egunkari edota aldizkarietako artikulu edo erreportajeak estentsiboki modu autonomoan irakurtzera bultzatzea.

Zertan den:

- Hemen proposatzen dugun prozedura nahiko unibertsala da, hau da, ulermena helburu dugularik irakasleak edozein testu lantzeko erabil dezakeena. Bestalde, behin PROZEDURAren eraginkortasunaz jabetu eta gero, ikasleari modu autonomoan lan egiteko ere eredu baliagarri suertatzen ahal zaio. Ikasleei esango zaie ariketa honetan erabilitako PROZEDURA Egunkariatik edo aldizkari batetik hartutako edozein testurekin erabil dezaketela, ulermena lantzeko.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea: galderak prestatu

- Erreportajearen izenburu nagusia (Pello Jauregi, gazte-koadrilak euskalduntzen) eta sarrerako testutxoa irakurri ostean, pare bat galdera prestatuko dituzte jorratuko den gaiaren inguruan. Sarrerako testutxoaren irakurketak sortu dizkien galdera, zalantza eta jakinminaren isla izango dira galderok. (10')
- Prestatu dituzten galderak azalduko dituzte talde osoaren aurrean. Irakasleak galdera horiek guztiak arbelean idatziko ditu modu txukunean, hau da, egin beharreko zuzenketak eta egokitzapenak eginez. (5-10')

!Oharra: Ariketa etxean egiteko erabiltzen bada, komeni da ikasle bakoitzak galdera-zerrenda luzexeagoa prestatzea, edo bestela, galdera-bilketa denon artean egin klasean eta irakurketa etxerako uztea.

Ataza: galderei erantzuna bilatu

- Erreportajea irakurri. Arbelean jasotako galderen inguruko informazioan arreta berezia jarri behar dute. (10-15')

Feedbacka

- Bukatutakoan, binaka jarri, eta galdera guztien birpasa egingo dute, galdera guztiak erantzuna izan duten konprobatzeko, bidenabar ulertzeko izan dituzten arazo eta zalantzak komentatuz. (10')
- Amaitzeko, irakaslearen gidaritzapean eta talde osoan egin daiteke galdera guztien birpasa komentatua. (10')

!Oharra: Etxean egiten bada, nork bere kabuz egin beharko du birpasa hori.

IKASLEAREN FITXA

■ Oraingoan aukeratu dugun erreportajea gazte-koadrileki lotuta dago. Lanean hasita, irakur itzazu izenburua eta sarrerako testua:

PELLO JAUREGI, GAZTE-KOADRILAK EUSKALDUNTZEN

Pello Jauregi Euskal Herriko Unibertsitateko Pedagogia Fakultateko irakasle da. Berak koordinatzen du Euskalduntze eta Alfabetatzerako Diplomatura. Orain lau urte erdaldunez eta euskaldunez osatutako koadrila gazte batekin aritu zen lanean Pasai Antxon. Euskaltegiko lana **oinarri** hartuta, koadrilako hizkuntz ohiturak aldatzen **saiatu** zen bi urtetan. Aurrerapauso handiak egin zituzten, bai erabileran, baita euskara-mailan ere. Baina ez zuen lortu koadrilako giroa erabat euskalduntzea. Orain, antzeko **egitasmo** bat jarri nahi du martxan, baina aurreko hutsuneak zuzenduz. Bederatzi koadrila izango dira, koadrila bakartuta ez egoteko. Eta euskaltegiko lana beharrezko izango bada ere, euskaltegiz kanpokoan gehiago ahaleginduko dira, adibidez, kultur aukera zabala eskaintzen. Bost urteko egitasmoa izango da. Lehen urtea plangintza **antolatzen** emango dute. Hurrengo hiru urteetan koadrilekin arituko dira lanean. Eta, bosgarrenean, lortutako **emaitzen** balantzea egingo dute.

■ Aurrekoa irakurrita, erreportajearen jorratuko den gaiaren nondik norakoaz galdera batzuk egitea eskatuko dizugu orain. Ahal dela, zuri sortu zaizkizun zalantza eta jakinmina asetzeko modukoak izan daitezela.



Blank lined area for writing answers.

■ Iritsi da galderi erantzuna bilatzeko ordua. Irakur ezazu arretaz erreportajea, eta saia zaitetz galdera guztien erantzunak bilatzen.

HABE: Nolako taldea aukeratu zenuen lehenengo frogarako?

PELLO JAUREGI. Guztira, proiektuaren bueltan 15 bat lagun ibili ziren, **batz beste 25** urtekoak. Eta hizkuntz gaitasunari dagokionez, denetatik zegoen. Bi euskaldun zahar -Pasai Antxon oso gutxi egiten da euskaraz kalean-, ez erabiltzearen poderioz oso euskara **trakestua** zeukatenak. Bi lagun zeuden euskaldun berritatz har zitezkeenak, euskaltegietan lau-bost urtez egondakoak, eta ongi moldatzen zirenak. Beste bost-sei laguneko multzoa zegoen, bosgarren-seigarren urratsean zebiltzanak. Eta bazeuden beste bost-sei lagun lehenengo- bigarren urratsean zeudenak.

Tabernara joaten zirenean, beste koadrila guztiak erdaraz”

H. Euskaltegiarekin loturarik ba al zuen proiektuak?

P.J.Bai. Euskaltegitik sortu zen. Ni Pasai Antxoko AEK euskaltegietan nabilen. Aurrerapauso batzuk eman genituen, oso interesgarriak. Baina konturatu ginen hutsuneak egotekotan, alderdi sozialean zeudela. Adibidez, koadrila hau tabernetara edo berezko testuinguruetara joaten zenean, askotan oso bakarrik sentitzen zen. Berak beren artean

ahalegin handia egiten ari ziren euskaraz jarraitzeko, baina gainerantzeko koadrila guztiak tabernetan erdaraz. Nahikoa zen beste talde bateko bat etorri eta erdaraz hastera, beren giro hori hausteko. Kanpotik laguntzarik ez, eredurik ere ez. Euskaltegian ez genituen faktore sozial horiek diseinatu; gehienbat alderdi didaktikoan oinarritu ginen.

Euskaltegian batzuetan denak elkarrekin

H. Nola eratu zenuten euskaltegiko lana?

P.J. Hasieran bi talde antolatuta genituen: beheko urratsetakoak, egunero bi orduz, asteleheneetik ostegunera; eta beste talde bat tarteko edo gaitasun handikoekin. Baina klaseko bigarren ordua talde osoa elkartuta ematen genuen. Gehienbat ahozko komunikazioan, erabileran, onarritu ginen. Talde guztia batera hizketan ari zenena, protagonismo gehiena gaitasun handikoek hartzen zuten. Baina gaitasun gutxikoak etengabe ari ziren entzuten eta ulertzen, eta horri esker ikasten zuten. Eta, konfiantza hartutakoan, haiek ere hasten ziren hizketan. Eta **tarteka** zalantza batzuk sortzen ziren, eta zalantza horien **arabera** lantzen genituen alderdi espezifiko batzuk, beharrezko arabera.

H. Lehen balantzea aipatu duzu, zer da hori?

P.J. Bi motatako balantzeak egiten genituen:

Oinarri ➔ Funtse. Base.

Saiatu ➔ Ahalegindu. Intentar.

Egitasmo ➔ Programa.

Antolatu ➔ Eratu.

Organizar.

Emaitza ➔ Ondorena. Resultado.

Batz beste ➔ Batekoz

beste. De promedio.

Trakestu ➔ Baldartua,

kamustua. Torpe.

Hutsuneak egotekotan ➔

De haber fallos.

Berezko ➔ Natural, espontáneo.

Hautsi ➔ Apurtu, eten. Romper.

Gehienbat ➔ Batik bat, batez ere.



Euskaltegiko lana oinarri hartuta, Pasai Antxoko gazte-koadrila baten hizkuntz ohiturak aldatzen saiatu zen bi urtetan.

batetik, eskolaren eta metodologiaren gorabeherak aztertzeko; eta, bigarrenik, hizkuntz ohiturei zegokiena. Ia hilabetean behin elkartzen ginen, normalean afaritxo bat egiten genuen, eta afalostean hasten ginen koadrilen ohituren **aldaketaz** hitz egiten, ze gorabeherak egon ziren eta. **Gatazka** asko sortzen dira eta tentsio horiek mahai gainean ipini behar dira, eta denon artean irtenbideak bilatu. Batek esaten zuen igoal: nik izugarrizko presioa nabaritu dut egun hauetan; denbora guztian euskaraz aritu zarete, nik ezin nuen, eta gaizki sentitu naiz. Hori beharrezkoa zen. Horrelakorik ez badago, lehenengo zailtasun serioa azaldu ondoren, esperientzia **bertan beherautzi** eta lehengora bueltatzen da taldea.

Tarteka, hiru hilabete behin,

hizkuntz erabilerari buruzko **neurketa** egiten genuen, bikoteka hartuta: Nik lagun honekin hainbeste hitz egin dut euskaraz, Otik 5era... Eta datu horiekin balantzea egiten genuen.

Testuinguru ezberdinetan

Eta hirugarren tresna, **ekintzak**. Testuinguru ezberdinekin jokatu nahi genuen: eskola, taberna, mendia, beste koadrila euskaldunak, kultur eskaintzak... Koadrila barruko giro euskalduna beste euskal giro batzuekin lotu behar zen. Saiatu ginen Oiartzungo koadrila euskaldun batekin harremanetan jartzeko, afariak egin, bi koadrilak lotzeko.

Euskal ekitaldiak zeudenean

taldea horietara joan... Helburua zen ez identifikatzea euskara euskaltegiaren testuinguruarekin bakarrik.

H. Eta bi urteko lanaren emaitzak?

P.J. Iritsi ginen erdara hutsez hitz egitetik erdiko egoerara. Bi urteetan zehar, batz bestea eginda, erabilera Otik 10era eskalan 4.6-4.7koa izan zen. Ez zen lortu egoera **elebakarrera** iristea, eta elebakarra da **egonkorra**. Ez zen finkatu euskaraz egiteko ohitura. Proiektua bukatzean, eta berriz erdal-giroa itzultzean, taldea erdaraz hitz egiteko ohiturara **itzuli** zen. Baina taldeko lau lagunek jarraitzen dute elkarrekin euskaraz egiten.

Hautsi ➡ Apurtu, eten. Romper.
Gehienbat ➡ Batik bat, batez ere.
Tarteka ➡ Noizbehinka, noizean behin.
Landu ➡ Jorratu. Trabajar, cultivar.
Aldaketa ➡ Alda(tu)+keta. Cambio.

Era berean: azterketa, ikerketa, garbiketa...
Gatazka ➡ Tirabira. Tensión.
Nabaritu ➡ Sumatu. Sentir.
Bertan behera utzi ➡ Alde batera utzi. Abandonar.

Neurketa ➡ Neur(tu)+keta. Medición.
Ekintza ➡ Acción.
Elebakar ➡ Monolingüe
Egonkor ➡ Estable.
Itzuli ➡ Bueltatu. Regresar.



ATAZA: URRUN TA FITS, BETIKO TA BETIKO

4. DASTATU LITERATURA: EZTIA ETA OZPINA 110'

Irakurketa literarioari eskainitako sail honetan, Patxi Zubizarretaren Eztia eta ozpina narrazioa proposatzen dizugu. Ikastunitatean hizpide izan dugun interkulturalitatearen gaia jorratuta dago kontakizunean zehar, Europako distirarekin etengabeko ametsen bizi den mutiko marokoarraren bizipen gazi-gozoetan. Ikaslearen ikuspegitik begiratuta ere irakurterraza eta ulergarria izan litekeela uste dugu. Proposatzen den ariketan ikasleek ulertzeko ahalegin handia egin beharko dute, oso modu aktiboan erantzutera bultzatuko baititugu: kontakizunaren balorazio orokorra egin beharko dute eta, horrez gain, pasarte txiki bat idatzi ere bai.

! Oharra: Liburu hau polita da, baina lehenengo kapitulua irakurtzerakoan tokien eta pertsonaien izenak arrotzak egiten zaizkie ikasleei eta ulermena oztopatzen die. Irakurtzen hasi aurretik, beraz, egiezu arbelean pertsonaien zerrenda:

- Selim (narratzailea)
- Mohamed (Frantziatik urtero uda partean herrixkara etortzen den gaztea)
- Abdelhadi (Selim-en anaia. Mohamed-en laguna)
- Yamila (Mohamed-en andregai)

PROZEDURA:

1

Atazaurrea:

- Irakur dezatela sarrerako aurkezpena: liburuaren azala eta Egunkarian argitaratutako komentario laburra. (3')
- Kontakizunaren lehendabiziko zatia irakurri (9-15 orr.) eta ikasle bakoitzak komentario labur hori osatu eta aberastu egin beharko du aipagarriak iruditu zaizkion alderdiak aipatuz. (20-30')
- Ikasleek, banan-banan, klasearen aurrean irakurri eta azalduko dituzte euren ekarpenak (komentarioari erantsitako testu-zatiak. Puntu interesgarriak edo eztabaidagarriak ateratzen badira, komenta itzazue labur-labur denon artean. (20-30')

Ataza: elkarrizketa idatzi

- Ikasleek, binaka jarrita, Mohamed eta Selim-en arteko elkarrizketa asmatu eta idatziko dute. Elkarrizketaren nondik norakoak bikote bakoitzak bere aldetik erabaki beharko ditu, istorioaren haria eta elkarrizketaren amaierako pasartetxoa kontuan hartuta. (20')

! Oharra: Beharbada, elkarrizketa horren luze-laburraz ere zerbait erabakitzea komeniko litzateke, bestela zera gerta baitaiteke, batzuek oso luzea egitea, eta beste batzuek oso laburra.

Prestaketa:

- Elkarrizketok klasearen aurrean antzeztuko dituzte bikote guztiek. Emaiezu denbora apur bat (hamarren bat minutu edo) antzezpenaren gorabeherak erabakitzeke eta entsaiatzeko. (10-15')

Azalpena:

- Antzezpenak egin. (20')

Feedbacka:

- Denen arteko feedbacka bideratuko du irakasleak. (10')

! Oharra: Egoki baderitzozu, sari batzuk ipini eta lehia-kutsua eman diezaiekezu antzezpen horiei. Adibidez: gidoi onenarentzako saria, aktore onenarentzako saria eta abar.

IKASLEAREN FITXA

Literaturekin dugun hitzordu honetara Patxi Zubizarretaren *Eztia eta ozpina* izeneko kontakizuna dakargu gaurkoan, interkulturalitatearen gazi-gozoak ezin hobeto islatzen dituen narrazio samur eta erakargarria.

Beti bezala, liburu oso-osorik irakurtzera animatu nahi zaitugu, eta helburu horrekin prestatu dugu ondorengo ariketa ere, liburuaren gaineko informazio pittin bat izan dezazun irakurtzea merezi duen ala ez erabaki aurretik.

Ea tarte gozo bat igarotzen dugun ariketa honen aitzakian!

■ Hasteko, irakur ezazu Euskaldunon Egunkariako literatur kritikoak nobela honen gainean idatzi zuen komentario laburra:




Eztia eta ozpina (Patxi Zubizarreta), Alberdania, 1995, 160 or.

Maroko ezagutzeko euskaraz idatzi diren lerrorik ederrenak biltzen ditu liburu honen lehen atalak.

Gasteizeraino iristen den etorkin gaztearen istorioak, gainera, milaka irakurle hunkitu ditu dagoeneko gurean.

(Euskaldunon Egunkaria, 98/ 7/ 25, 36. or.)

- Ikusi duzun bezala, oso laburra da komentarioa, laburregia, beharbada, liburuaren berri jakiteko gogo biziz dabilenarentzat. Irakur itzazu liburuaren lehendabiziko orrialdeak (9-15 orr.) eta ea komentario hori apur bat luzatu eta aberasteko gai zaren irakurritako zati horretan azpimarragarrienak iruditu zaizkizun alderdiak aipatuz. Komentarioaren jarraipenerako proposamena:



Arruneko pikuak

Urtero-urtero, uda partean, Imlileraino auto bakar bat ailegatzen zen. Herriko haur eta gazte guztiok begiak bideari lotuak izaten genituen eta, halako batean, bidean gora hauts zirimola bat altxatzen nabaritzen genuenean, zeregin guztiak bertan behera utzi eta Mohamedi ongietorria egitera joaten ginen, zeren Mohamedena baitzen urtero-urtero, uda partean, gure herrixkaraino ailegatzen zen auto bakarra.

Bidera oihuka eta ziztu bizian ateratzen gintzaizkion, eta orduan, berak, Renault dotorearen leihatilatik, Frantziatik ekarritako goxokiak botatzen zizkigun, "Purra, purra!", oiloei bezalaxe.

-Ea astopista hau behingoz garbitzen duzuen!
-esan ohi zigun irriz karkailaka-. Hau al da herritarrak hartzeko modua?

Mohamed, gure anaia Abdelhadiren lagun mina zen, eta ni irrikatzen egoten nintzen haren berri izateko.

- Iritsi al da Frantziara? Iritsi al da? galdegiten nion autotik jaitsi bezain laster.

Alabaina, Mohamedek lehen-lehenik Yamilarekin egon nahi izaten baitzuen (hari eskainiko zizkion urtean zehar gordetako musu guztiak; harentzat ekarriko zuen harribitxi edo zetazko zapi ederren bat), niri itxaroteko esaten zidan, beste batean lasaiago hitz egingo genuela, eta bien bitartean garbitu bat emateko bere auto hautsez beteari.

Lagunartean, oilarrak baino harroago egoten nintzen ni Mohameden begikoa izateagatik, niri beste inori ez baitzion aginduko autoa garbitzeko. Eta hura Yamilarenetik etorri artean eta garbiketari ekin aurretik, autoan sartu, bolanteari heldu eta, amets egiten nuen aurrena Marrakexerantza abiatzen nintzela, eta zikoinen antzera hurrena Gibraltarreko itsasadar entzutetsua zeharkatzen nuela, hurrengo Espainia osoa eta, azkenik, behin Frantziaraino

ailegaturik, Mohamed bezala aberastu egiten nintzela...

Etxean, osteran, ez zuten Mohamed oso maite. Gure aitak, esate baterako, Alegorri alaena deitzen zion, eta udaro-udaro opariren bat ekartzen zigun arren, aitak mesprezuz begiratzen zion. Eta niri ere halamoduz begiratuko zidan etxera lasterka heldu eta, pozaren pozez, Mohamed eta Abdelhadiren azken berriez mintzatzen hasiz gero, zeren bi izen haiek erabat debekatuta baitzeuden gurean.

Arratsaldero, Mohamedek toki ezkutu samar batera eramanez ohi zuen Yamila, ni ahuntz eta antxumeeekin ibiltzen nintzen ibarretik ez oso urrun, eta handik bikoteari zelata egitea atsegingarria zitzaidan. Ene gordelekutik, Mohamed Yamilaren gainean etzaten ikusten nuen, eta barre ttiki artean, jostatzen nola aritzen ziren. Hastapenean, Mohamedek neskaren adatsa lastandua, haren ileak korapilatu eta zertxobait xuxurlatzen zion belarrira; eta Yamilak batzuetan jotzeko mehatxua egiten zion, eta beste batzuetan musuka hasten zitzaion. Yamilak musu emanez gero, Beltza, gure akerrak ahuntzarekin bezalatsu jarduten zuen Mohamedek.

Ni luzaroan egoten nintzaien barrandan, harik eta eskutik lotuta joaten ikusten nituen arte. Orduan, jostetan txanponen bat edo jausiko zitzaielakoan, beren ezkutalekura inguratu eta miaketan hasten nintzen. Garai hartan ezagutu nituen, aurreneko aldiz, Mohameden hazia gordetzen zuten zorro lirdingatsu haiek; baina Marrakexera joan arte ez nuen jakiterik izan haiek zertarako balio zuten.

Yamila Mohamedekin haserretu zen egun batez, behingoz, gure anaia Abdelhadiren azken albisteak ezagutu ahal izan nituen. Egun hartan, biak kontuisilka aritu ostean, bat-batean Yamila altxa eta ez hitz ez hitzondo utzi zuen Mohamed. Hark burumakur jarraitu zuen neskaren atzetik: barkatzeko eskatzen zion, dena delakoa txantxetan izan zela ez ziola halakorik berriro esango; baina ni nengoen aldera inguratu zelarik, etsi egin zuen.

-Gazela gaztea izan arren, ederki ikasi dik muturrak erakusten.

Nik ez dakit bere buruari ala niri zuzendu zitzaidan. Hala ere, gero bai, gero niri begiratu eta proposamen hau egin zidan:

-Tira Selim, lore sorta eder bat biltzen laguntzen badidak, frantses libera bat emango diat, eta bukatutakoan, nahi baduk, hire anaia berri emango diat.

Abdelhadi aipatu izan ez balu, libera batek zenbat dirham egingo ote zituen pentsatuko nuen; galdetu ere egingo nion seguruenik, baina behin anaia hizpidera ekarrita, larritu egin nintzen zeharo. Hiru bat urte baziren Abdelhadik etxetik aldegin zuela, eta harrezkero inoiz ez genuen haren albiste bakar bat ere jaso. Aitak, bestalde, anaia izena aipatzea arras debekatuta baitzigun, horrek gure jakinmina areagotu besterik ez zuen egiten.

-Iritsi al da azkenean Frantziara? braust galdegin nion.

-Oraingo honetan iristekotan egon duk, baina azken ahaleginean harrapatu egin ditek...

Astoaren mandolina! Berriro ere harrapatu... Eta erantzunaren ondoko isilune latzean, loreak bildu bitartean, ene lagunez oroitu nintzen. Beraiek argitu zidatenez, gure anaia jaino zelarik, emaginak limoi bat hartu, labanaz erdibitu eta tanta bana isuri zuen haur sortu berriaren begietan. Ondoren, umeari ahoa irekiarazi eta, usadioari jarraiki, hatz erakuslea sartu zion. Antza, hortz ttikiren bat antzeman zion, zeren fitsik ere esan gabe (ezta ohizko "Mutiko argia eta bizkorra izango da" hura ere), kopetilun aldegin baitzuen. Eta haurtxoari hortz goiztiarrik topatzea adur txarrekoa baita, denek pentsatu zuten Abdelhadi zoritxarrekoa izango zela eta bizitzak ez ziola ezer onik ekarriko. Dena dela, anaia haur denborako kontu haiek beti etxetik kanpo eta trufa giroan entzunak nituenez, ezin bada jakin sinetsi beharrekoak ziren ala ez.

-Oraintxe Tangerreko zezen-plazan zagok-gaineratu zuen-, milaka atxiloturekin batera. Haietako asko eta asko Gibraltarreko itsasadar madarikatuan harrapatu zitiztean; beste batzuk, ordea, hire anaia kasu, urrunago atxilotuak izan dituk.

-Lortu al duk anaiaekin hitz egiterik? Ongi al dago? Zerbait gehiago kontatu al dik? Goraintziak eman al dizkik? bota nion arrapaladan.

Bai, oraingo honetan, diru apur baten truke, izan diat berarekin mintzatzeko aukerarik.

Eta, eta...? estutu nuen urduritasunak jota.

-Azken saiakeran ia Frantziako mugaraino heldu zuan, Donostia izeneko hiri bateraino. Han bazuan portugaldar arraio bat, kamioizaleekin harreman onak omen zauzkana. Haiekin elkar hartuta, aldian hiru, aldian bost lagun Frantziara kamioian gordeta eramaten zitiztean, baina hire anaiarena gertatu zenerako, polizia susmoa hartuta zagoan, eta halakoetan normala denez, ba, zera, kamioizale zorrizaku batek portugaldar mugalaria salatu egin zian... Geratu bezala, gauerdian bazaudek portugaldarra eta hiru lagun hiriko hilerriaren atarian, bazatorrek kamioizalea bere trailerrarekin eta hiru anaia-eta atoian sartzekotan daudela, merde!. Polizia bertan! Orain, esaten diat, Tangerreko zezen-plazan

zagok, auskalo noiz arte, baina ez dik etsitzen... Dena dela, aginduidak ez duala honetaz txintik ere esango; hire anaia inork ezer ez jakitea nahiago dik. Frantziara ailegatzean, orduan bai, orduan berehala jakinaren gainean jarriko zaituzte.

-Lasai egon, hori ez zioat esango ezta infernuko otsoari ere- hitz eman nion.

Nola esango nuen bada! Etxean ezinezkoa zitzaidan anaia aipatzea, eta, bestalde, lagunartean ez nuen lotsagarri gertatu nahi. Eta Mohameden kontaktak bihotza ilunduraz betea zidala, Draa erreka uretan doi bat freskatu eta lore bila jarraitu nuen. Baina... Eta Mohamedek istorio haiek ni beldurtzeko eta Imliletik ez aldegitoko kontatu izan balitu? Zeren ni irrikatzen bainengoen handik hanka egiteko eta sakelak bete diru itzultzeko. Gainera, ni ez nintzen Abdelhadi bezalakoa; jaiio berritan, niri ez zidaten inongo hortzik antzeman. Zalantza izpirik gabe, gure anaia baino zorte hobea izango nuelakoan, Mohamedi honela setatu nintzaion:

- Aukeratutako zatiaren amaieran, kontakizuna eteten den unean, gure bi protagonisten arteko elkarrizketa edo dialogo bat hasten da. Bil zaitetz batekin eta saia zaitetzte elkarrizketa hori idazten, beti ere, jakina, istorioaren haria kontuan izanda. Egizue, kontu, baita, ere, elkarrizketa horri amaiera emateko honako hitzok erabiltzen dituela narratzaileak:

Azkenean Yamilarentzat lore-sorta polita osatu eta Mohamedek agindutako libera eman zidan. Txanpon hura eskuan, une batez zoriontsu sentitu nintzen: dagoeneko baneukan ene bidaiari ekiteko lehendabiziko libera.

Ea, bada, nola betetzen duzuen hor hutsik geratu den tarte hori.

- Elkarrizketa:



Eskuetan daukazun liburuska HABEk Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK) garatzeko sustatu duen ikasmaterialari dagokio.

Kurrikulu berri honen arabera, euskalduntzeko prozesua lau mailatan banatzen da:

1. maila (aurreneko 6 urratsak gutxi gorabehera, eta bi zatitan banatua: 1 A eta 1 B (4. ,5. eta 6. urratsak); 2. Maila (7., 8. eta 9. urratsak); 3. maila (10., 11. eta 12. urratsak) eta 4. maila (EGAtik gorakoa).

HABEk materialgintza proiektuaren bidez kurrikuluaren garapenean lagun dezaketen ikastunitate-eredu batzuk aurkeztu nahi ditu.

BARRENE (1B mailarako materiala)

- Zu Tarzan... ni Jane (1. ikastunitatea)
- Ikusiz ikasi (2. ikastunitatea)
- Ederra da hitza (3. ikastunitatea)
- Eta etorkizunean, zer? (4. ikastunitatea)
- Han ere txakurrak oinutsik (5. ikastunitatea)
- Euskaldun fobiadun (6. ikastunitatea)
- Txangoa (7. ikastunitatea)
- Sineskeriak (8. ikastunitatea)

BARRENET (2. mailarako materiala)


- Euskaldunaren hitza ez da ur gaineko bitsa (1. ikastunitatea)
- Zu nolako, etxea halako (2. ikastunitatea)
- Donostian Donosti eta gorostian gorosti (3. ikastunitatea)
- Liburuak, trukean (4. ikastunitatea)
- Euskal balea (5. ikastunitatea)
- Ogi gogorrari hagin zorrotza (6. ikastunitatea)
- Aratuste edo ihauteri: Pirata edo kortsari (7. ikastunitatea)
- Opor bereziak (8. ikastunitatea)

BARRENKALE (3. mailarako materiala)

- Neu eta neu bezalako beste piztia batzuk (1. ikastunitatea)
- Txapela buruan, ibili munduan (2. ikastunitatea)
- Lèvi-Strauss eta Levi Strauss (3. ikastunitatea)
- Lau hankako lagunak (4. ikastunitatea)
- Hara eta hona (5. ikastunitatea)
- Atxagaren beldurrak (6. ikastunitatea)
- Bizi aroak (7. ikastunitatea)
- Olatua ez dator behin ere bakarrik (8. ikastunitatea)

Denek dute irakaslearentzako zein ikaslearentzako liburuska (irakaslearena eta ikaslearena). Horrez gain bideo- eta audio-zintak ere argitaratu dira.

HABE
Herriaren Aholkaria eta Demokraziaren Oinarria
Erlakunde Autonomikoa



ISBN84-86968-69-0



9 733436 963694